



EBAZPENA, 2021eko UZTAILAREN 7koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2021eko URTARRILAREN 22an IREKI ZIREN ORDEZKOGAIEN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 22ko ebazpenaren bidez ordezkapenatarako izangaien aparteko zerrendak ireki ziren ondorengo mailetan: Hizkuntzen Irakaskuntzak eta Musika Irakaskuntzak. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 7.d artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Zerrenda horietan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda argitara eman zen, 2021eko urtarrilaren 25etik 29ra bitartean, biak barne, aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta. Behin-behineko zerrenda horien kontra aurkeztutako erreklamazioak berrikusi eta akatsak zuzendu ondoren, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrenda emango da argitara.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea, Hizkuntzen Irakaskuntzak eta Musika Irakaskuntzak mailetan, ordezkapenatarako zerrendetan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda; hori Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 22ko ebazpenaren bidez ireki ziren. Kanpoan utzitakoen kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazioa edo arrazoiak adieraziko da/dira.

Bigarrena.- Zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak alfabetikoki izen-deituren arabera ordenatuko dira; 2020/2021eko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehazten duen letra finkatzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza V letra izan zen; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 7ko ebazpenaren bidez argitara eman zen.

Hirugarrena.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak ondorengo tokietan kontsultatu ahal izango dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren Segimendua)” estekan klik egin.
- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/> orrian / Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2021-01-22ko deialdia (HEO eta Kontserbatorioak) / Deialdia / Onartutako eta ez onartutako ordezkoen behin betiko zerrendak, eta www.irakasle.eus estekan klik egin.



Bi kasuetan edozeinetan, aldez aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orrian lortu ahal izango dira, “Pasahitza eskuratu (edo berreskuratu)” estekaren bidez.

Ondoren, eta “Kontsulta pertsonalizatua” estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendatik baztertuta geratu diren pertsonen kasuan, “Kontsulta pertsonalizatua” atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Interesatuak gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; hau da, 2021eko uztailaren 8tik abuztuaren 9ra bitartean, biak barne.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 7